

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2091

AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak iragartzen baitira Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzat, honako hauek ezartzeko eremu estrategikoetarako jarduketa-lerroak gara ditzaten 2022-2023ko ikasturtean: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana, Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala, eta Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETE-en Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala.

Gaur egungo egoera sozioekonomikoan merkatuen zein ekoizpenaren globalizazioa da ezau-garri nagusia; horregatik, enpresen ekoizpen-ehunak eta, ondorioz, enpresa-ereduak egoera berri horretara egokitu behar dute. Globalizazio-prozesu horrek lehia handia eragiten du; hori dela eta, lehia-posizioak eginkizun garrantzitsua du enpresen etorkizunean. Lehia-posizio hori garpenerako eta enpresa-hazkunderako motorra ere bada, eta lortuko bada, adimen-kapitala zein ezagutzaren kudeaketa eraginkorra behar dira, baita estrategia berritzaileak aplikatzea ere, biak ala biak enpresetan balioa eta lehiatzeko abantaila sortzeko iturri baitira.

Egoera horrek lanbide-profil berri bat eskatzen du; hain zuzen, gaitasunen hobekuntza argia egiaztatuko duena, eta ez soilik gaitasun teknikoena, baita oinarritzako eta zeharkakoena ere: ekimena, erantzukizuna, konpromisoa, autonomia, taldeko lana, analisi-gaitasuna, ezagutzaren transmisioa eta erabakitze gaitasuna, besteak beste.

Lanbide Heziketak enpresen funtsezko aliatua izan behar du profil profesional berri horien garapenean, ikasleen kualifikazioa eta espezializazioa, eta ondorioz enplegurako gaikuntza, hobetzen lan eginez.

Garapen- eta berrikuntza-sistemak aukera berriak sortzera eta enplegu-sorrera laguntzera bideratzea da Lanbide Heziketako ikastetxeen erronka nagusia.

Hartarako, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak lanbide-heziketa diseinatu eta garatzearen alde egin du, non ikastetxeak adimen estrategikoaren eta ezagutzaren unitate autonomo eta malgu bihurtzen diren; era horretan, etengabeko eboluzioan ari den gizartearen eta ekoizpen-sektorearen –berezi industrialaren– beharrak aurreikusteaz gain, produktu edo ekoizpen-prozesu berriak sortzeko aukerak modu proaktiboan identifikatu ere egin ditzakete, bai eta indarra hartzen ari diren sektoreetako jarduerak ere, euskal ekoizpen-ehunaren lehiakortasuna zein ikasleen enplegarritasuna hobetu eta indartzeko.

Ildo horretatik, Lanbide Heziketako V. Euskal Planak lanbide-heziketako euskal sistemaren eraldaketak zuzendu behar ditu, eta horretarako, hainbat helburu eta jarduketa-lerro nagusi ezartzen ditu eremu estrategiko hauen barruan: Prestakuntza integratua, berrikuntza aplikatua, ekintzailetza aktiboa, nazioartekotzea eta Lanbide Heziketako ikastetxeak.

Era berean, irakaskuntza-gaikuntza digitaleko plan bat behar da, etorkizunerako irakaskuntza-ikaskuntza prozesu berritzaileak eta jasangarriak sustatuko dituen. Horretarako, 2020ko abenduaren 29an onartutako Digitalizazio Aurreratuko Plana diseinatu da, eta horrekin esparru digital berri bat sustatu nahi dugu, ikastetxeei laguntzeko digitalizazioa erabil dezaten hezkuntza-eraldaketarako eta etengabeko hobekuntzarako palanka gisa.

Testuinguru horretan, Euskadik giza garapen jasangarriaren aldeko apustua egiten du, non ekonomia, gizartea, ingurumena eta kultura elkarren artean konektatuta baitaude. Interkonezio eta oreka horiek funtsezkoak dira bizi-kalitate hobea lortzeko, eta Lanbide Heziketak funtsezko zeregina du. Horretarako sortu da Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETE-en Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala, 2020ko abenduaren 29an onartua.

Hezkuntza Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen da deialdi hau, halaber.

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, Lanbide Heziketako V. Euskal Plana eraginkortasunez ezartze aldera, itunpeko ikastetxe pribatuei dei egiten die jarduera eta proiektuetan parte hartu dezaten haien irakasleen bidez, irakasle horien kompetenziak indartzeko, helburu hauetarako: teknologikoki oso aurreratuak diren inguruneei erantzun diezaieten; Lanbide Heziketaren parte-hartzea sustatu dezaten enpresei laguntzeko –ETE-ei, batez ere–, eta horiei eskainitako estaldura zabaltzea lortu dezaten; beharizan teknologikoen aniztasunarentzako erantzun sistematiko bat sortu dezaten Lanbide Heziketatik; eta lehentasun teknologikoak eguneratu eta lerrokatu ditzaten Euskadiko berrikuntza-estrategiarekin, horretarako tresna sistematikoak ezarri.

Ondorioz, eta bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testuategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren laguntzen eta dirulaguntzen araubidea erregulatzen duena), 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VII. tituluko III. kapituluarekin (Laguntzen eta dirulaguntzen arloko arau-hausteen eta zehapenen erregimenari buruzkoa) eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Agindu honen xedea da itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleen parte-hartzea sustatzea, honako hauetan estrategikotzat definitutako eremuetarako jarduketa-lerroak gara ditzaten 2022-2023ko ikasturtean: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana, Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plana, eta Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETE-en Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala; jarduketa-lerro horiek deialdi honen 3. artikuluan zehazten dira.

2. artikulua.– Onuradunak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte ikastetxe pribatuen titular diren pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako heziketa-zikloak itunduta badituzte 2022-2023 ikasturtean.

3. artikulua.– Dirulaguntzaren xede diren jarduera-lerroak.

1.– Agindu honen bidez diruz lagunduko diren jarduketek zerikusia izango dute honako hauek ezartzeko lehentasunezkoztat jotzen diren helburuak erdiesteko jarduerekin: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana, Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plana, eta Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETE-en Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala; hain zuzen ere, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak helburu horrekin sustatutako jarduerak izango dira. Ikus I. eranskina.

2.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzak bultzatutako ekimenekin bat egingo dute hala eskatzen duten itunpeko ikastetxeek, eta bere egingo dituzte ezarritako helburuak, garapen-baldintzak eta plangintza.

3.– Jarduketa-lerroak behar bezala ebaluatu eta garatzearen arduradun, dagokionaren arabera, hauek izango dira: TKNKA Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroa, IDEATK Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuaren Euskal Institutua, eta EEI Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua.

4. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Agindu honen xede diren jarduerak diruz laguntzeko zenbateko osoa bi milioi bostehun eta hirurogeita zazpi mila seiehun eta laurogei eurokoa da (2.567.680). I. eranskinean azalduta dago zenbateko hori nola banatuko den deialdiaren xede diren eta diruz lagundu daitezkeen jarduketa-lerroen artean.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Jarraian adierazten diren gastuak lagundu ahal izango dira diruz:

a) Irakaskuntza-jarduera (zuzeneko irakasletza) eta hari lotutako bestelako jarduera osagarriak garatzeko ordezkot langileak kontratatuzko kostuak, betiere jarduera horiek garatzen badira diruz lagundutako jarduera egiteko liberatutako irakasleei esleitutako orduetan.

b) Irakaskuntza-jarduera (zuzeneko irakasletza) eta hari lotutako bestelako jarduera osagarriak garatzeko ikastetxeak dituen irakasle propioen kontratua luzatzeko kostuak, betiere jarduera horiek garatzen badira diruz lagundutako jarduera egiteko liberatutako irakasleei esleitutako orduetan. Diruz lagundutako jarduera egiten duten irakasleek ikastetxeko irakasle izan behar dute 2021-2022 ikasturtean.

c) Irakaskuntza-jarduera (zuzeneko irakasletza), hari lotutako bestelako jarduera osagarriak eta diruz lagundutako jarduera garatzeko ikastetxeak dituen irakasle propioen kontratua luzatzeko kostuak. Diruz lagundutako jarduera egiten duten irakasleek ikastetxeko irakasle izan behar dute 2021-2022 ikasturtean.

Deialdi honen ondoreetarako, egotz daitezkeen kostutzat hartuko dira ordainsariak eta erakunde eskatzailearen konturako karga sozialak.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak estaltzeko epea 2022ko irailaren 1ean hasi eta 2023ko abuztuaren 31n amaituko da.

3.– Jardueran, 726 irakastordu eta 526 ordu osagarri lagunduko dira diruz, gehienez, lanaldi osoko liberazio baterako. Ordezko langileak kontratatuzko diruz lagundu eta egotz daitezkeen ordutako gehieneko kostua berrogei (40) euro da irakasleentzat. Lanaldi partzialeko liberazioak izanez gero, lanaldi osorako ezarritako gehieneko kopuruaren proportzioan kalkulatu da proiektuan gehienez ere diruz lagunduko den ordu kopurua.

6. artikulua.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Dirulaguntzak jaso ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte ikastetxe onuradunek:

a) Itunpeko ikastetxe pribatua izatea, eta 2022-2023 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematea.

b) Inolako zigor penalik ez administrazio-zigorrik ez izatea, dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duenik.

c) Indarrean dauden xedapenek zergen eta gizarte-segurantzaren arloan ezartzen dituzten eginbideak beteak izatea. Betekizun hori deialdia ebatzi eta diruz lagundutako zenbatekoaren ordainketa egin arte beteta eduki behar dute.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean ez egotea.

2.– Betekizun orokorrez gainera, dirulaguntza eskatzen den jarduera bakoitzerako agindu honen I. eranskinean ezarritako betekizun espezifikoak ere bete beharko dituzte.

7. artikulua.– Diruz lagundutako jardueren iraupena.

Diruz lagundutako jarduera hasiera ematen diotenetik 2022-2023 ikasturtea amaitzen den arte garatuko dute, hau da, 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arteko aldian.

8. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Interesdunek prozedura honetako izapide guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko baliabide elektronikoa erabiliz eskatu, kontsultatu eta egingo dituzte.

2.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak, zeinaren bidez onartu baitzen PLATEA E-Administrazioako Plataforma Teknologikoa.

3.– Eskabideak bide elektronikoz nola izapidetu, eskabiderako zer inprimaki erabili behar den, zer dokumentazio-eredu erantsi behar diren eta deialdi honekin lotutako gainerako izapideak nola egin honako helbide elektronikoa honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0097613>

4.– Eskabidearen osteko izapideak, justifikazioa barne, honako helbide honetako Nire karpeta atalaren bidez egin beharko dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartuta dauden identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide elektronikoa honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Izapidetze elektronikoa ordezkarri baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkarria Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskribatu beharko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

9. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea.

1.– Eskabideak (II. eranskina), atal guztiak behar bezala beteta, bide elektronikoz aurkeztu behar dira, agindu honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta hilabeteko epearen barruan, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Eskabideak aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak berariaz eta formalki onartzea. Eskabide bat aurkeztu behar da dirulaguntza eskatzen den jarduera bakoitzeko.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikulua aplikatuz, eskabidearekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, honako betebeharrak egiaztatzeko:

a) Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatu zaizkien eta, hala badagokio, haietatik jaso diren dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea, eta adieraztea, baiezkota izanez gero, laguntza eman duen erakundearen izena eta zenbatekoa.

b) Administrazio- edo zigor-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera gaitzarekin zigortuta ez dagoela, edo dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen duen legeko debekuren baten eraginpean ez dagoela, ezta sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuren baten eraginpean ere.

c) Eskabideko datuak eta harekin batera aurkeztutako agirietaoak egiazkoak izatea, eta indarreko araudian dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzea.

d) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako egoeraren batean.

e) Erakunde eskatzailea itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta badago, hau da, EAEko Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den halako prozeduraren batean, zehaztu egin beharko du zer prozeduratan.

4.– Eskabidearekin batera, kasuan kasuko jarduerari dagokion inprimakia aurkeztu behar da. III. eranskina.

5.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteak baimena emango du Lanbide Heziketako Sailburuordetzak zuzenean egiazta dezan dirulaguntzen eskatzaileek betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, hala-korik egiten baldin badu, betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzen duten administrazio-agiriak aurkeztu beharko ditu.

6.– Eskabidea oso-osorik betetzen ez bada, edo eskabidearekin batera behar den dokumentazioa aurkezten ez bada, ikastetxe interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsa zuzentzeko, edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta, gainera, adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabideari uko egiten diola ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen araberrako ebazpena eman ondoren.

10. artikulua.– Hautaketa-irizpideak eta puntuazioa.

1.– Deialdi honen barruan diruz lagundu daitezkeen jarduketa-lerroak emateko prozedura norgehiagoka izango da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluan xedatutakoa betetz (azken artikulua horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren laguntzen eta dirulaguntzen araubidea erregulatzen du); hau da, aurkeztutako eskabideak alderatu egingo dira, haien arteko hurrenkera ezartzeko I. eranskinean jarduera bakoitzarentzat alde aurretik ezarritako balorazio-irizpideekin bat etorriz, eta irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenei

laguntzak esleitzeko, kontuan harturik erabilgarri dagoen kreditua eta aipatutako eranskinean finkatutako muga.

2.– Diruz lagundutako jarduera bakoitzeko gehienezko ordu kopurua I. eranskinean zehaztuta dago.

11. artikulua.– Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa.

Jarduera bakoitzerako dirulaguntzaren zenbatekoa I. eranskinean adierazitakoa izango da, eta ez du inola ere gaindituko ikastetxeak, 5. artikuluaaren arabera, irakasleak kontratatzeke egin behar izan duen gastua.

12. artikulua.– Prozeduraren instrukzioa.

1.– Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariak izango du laguntzak emateko prozedura instruitzeko eskumena.

2.– Balorazio-batzorde bakar bat eratuko da, I. eranskinean azaldutako jarduketa-lerroetara aurkeztutako eskabideak aztertu, ebaluatu eta hautatzeko. Kide anitzeko organo gisa jardungo du, eta hauek izango ditu kide:

a) Batzordeburua: Rikardo Lamadrid Intxaurre jauna, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria.

b) Bokalak:

Juan Carlos Molinero Montes jauna, TKNIKA EAeko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroko arloko zuzendaria.

M.^a José Barriola Baraibar andrea, TKNIKA EAeko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroko arloko zuzendaria.

Agustín Agirre Andonegui jauna, TKNIKA Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroko ikaskuntza-metodoen eta -prozesuen ikerketaren arloko zuzendaria.

Luis Saratxaga Quintana jauna, EEI Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuko zuzendari exekutiboa.

Laura Oleaga Pérez de Mendiguren andrea, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako teknikaria; idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza izango du, baina botorik ez.

3.– Balorazio-batzordeak, aurkeztutako eskabideak ebaluatuta, ebazpenaren behin-behineko proposamena egingo du, behar bezala arrazoitua. Proposamen hori agindu honen 8. artikuluan ezarritako baliabide elektronikoez jakinaraziko zaie eskatzaileei, eta 10 egun naturaleko epea emango zaie, jakinarazi eta biharamunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko edo, baldin eta proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutakoa baino txikiagoa bada, eskabidea berriro egin ahal izateko, hain zuzen ere, eman daitekeen dirulaguntzara egokitzeke konpromisoak eta baldintzak. Hamar egun naturaleko epea igarotzen bada jakinarazpenaren edukira sartu gabe, jakinarazpena baztertutzat joko da, eta, prozedurari jarraikiz, izapidea gauzatutzat joko da, salbu eta, ofizioz edo hartzaileak eskatuta, horra sartzea teknikoki edo materialki ezinezkoa dela egiaztatzen bada.

4.– Nolanahi ere, eskabideak berriro egitean, dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua ez ezik, ezarritako balorazio-irizpideak ere bete beharko dituzte.

5.– Aurkeztutako alegazioak eta eskabideak berriro formulatzeko proposamenak aztertuta, balorazio-batzordeak ebazpenaren behin betiko proposamena egingo du, dirulaguntza ematea proposatutako eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda adierazita, baita zenbatekoa ere, eta horretarako jarraitutako ebaluazioa eta balorazio-irizpideak zehaztuko ditu proposamen horrek. Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariak, instrukzio-organo gisa, Lanbide Heziketako sailburuordeari bidaliko dio proposamen hori, ebazpena eman dezan.

6.– Ebazpenaren behin-behineko eta behin betiko proposamenek ez dute eskubiderik sortzen, aipatutako proposamenean onuradun gisa ageri diren pertsonen alde, harik eta laguntza emateko ebazpena jakinarazten zaien arte.

13. artikulua.– Deialdia ebaztea.

1.– Deialdi honetan aurkeztutako eskabideak prozedura bakarrean izapidetuko dira, eta, horiek ebaztea, interesdunek planteatutako gai guztiak erabakita, Lanbide Heziketako sailburuordeari dagokio, balorazio-batzordeak proposatuta.

2.– Hartzen den ebazpenak erabakiko du eskatutako dirulaguntzak emango diren ala, hala badagokio, ukatu egingo diren; emanez gero, adierazi behar dira pertsona edo entitate onuradunen izena edo izen soziala, zer ikastetxe den, zer proiektu finantzatu den, eta zenbateko dirulaguntza eman zaion. Horrez gain, nortasunik gabeko elkarteak badira, idatziz adieraziko dira elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa. Ukatutako eskabideei dagokienez, eskatzaileen izena edo izen soziala eta laguntza zergatik ukatu den adieraziko du ebazpenak.

3.– Aurreko paragrafoan aipatzen den ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen, eta interesdunek, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Argitaratzeaz gain, organo kudeatzaileak erakunde interesdunei jakinarazpen-abisuak bidaliko dizkie, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara SMSak edo mezu elektronikoak bidaliz. Abisu horiek inoiz ez dira jakinarazpentzat hartuko.

4.– Ebazpen hori argitara emango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>), eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak. Ebazpenek barnean hartuko dituzte alderdi hauek: emandako dirulaguntzen zerrenda, eta ukatuena, zenbatekoak adierazita lehen kasuan, eta ukatzeko arrazoiak bigarrean. Prozeduratik kanpo utzi diren eskaeren zerrenda ere barnean hartuta egongo da.

5.– Agindu honen babesean aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko, gehienez ere, sei hilabete izango dira, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsizat jo ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren ondorioetarako.

6.– Dirulaguntzak eta laguntzak onuradunei eman eta, hala badagokio, ordaindu ahal izateko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea oraindik izapidetzen ari diren itzultze- edo zehatze-prozedura guztiak, betiere prozedura horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen eremuan hasi badira.

14. artikulua.– Justifikazioa.

1.– Agindu honen xede diren dirulaguntzen onuradunek, 2023ko irailaren 8a baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) V. eranskina: ordezte-prozesua ondo ulertzeko beharrezkotzat jotzen diren ohar guztiak «oharrak» atalean azalduko dira.

b) Amaierako justifikazio-memoria (VI. eranskina).

c) Ordezko irakasleen lan-kontratuaren kopia autentikoa, 4.1.a) artikuluan aurreikusitako kasuan bakarrik.

d) Ordezko irakasleen nominen kopia autentikoak, diruz lagundu daitekeen gastuaren estaldura-aldia osoari dagozkionak (agindu honen 4.2 artikuluan ezarrita dago estaldura-aldia).

2.– Justifikazio-agiriak aurkezteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bitarteko elektronikoak erabili beharko dira, honako helbide honetako «Nire karpeta» atalaren bitartez:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Diruz lagundutako zenbateko osoa eskuratzeko, ordezeko langileak kontratatzeari egotz dakizkiokeen kostuak diruz lagundutako zenbatekoa baino handiagoak edo parekoak izan behar dira.

15. artikulua.– Dirulaguntzaren ordainketa.

1.– Dirulaguntzak hiru zatitan ordainduko dira, honela:

a) Lehenengo ordainketan, onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 50 ordainduko da, eta 18.1 artikuluan adierazten den epea bukatutakoan ordainduko da, baldin eta bitarte horretan dirulaguntzari uko egin ez bazaio, eta, betiere, 2022ko urriaren 28a baino lehen IV. eranskina (Liberatutako eta ordezeko irakasleen ordu-dedikazioaren ziurtagiria) aurkeztu ondoren. Ziurtagiriarekin batera, Hezkuntza Jardueren Dokumentua (HJD) erantsiko da, bertsio itxian, behar bezala beteta eta ikastetxeko zuzendariak sinatuta. Bertan adieraziko da, «Eremu estrategikoetako jarduketa-lerroak» azalpenarekin, diruz lagundutako jardueran aritzen diren irakasle titular eta ordezkoen liberazioa.

b) Bigarren ordainketa onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzaren % 40koa izango da, eta 2023ko ekitaldian egingo da, diruz lagundutako jardueraren % 50 garatu ostean, betiere ebaluazioaz eta jarduera behar bezala garatzeaz arduratzen den erakundeak aldeko ebaluazio-txostena egiten badu, dagokionaren arabera, agindu honen 3. artikuluen 3. zenbakian xedatutakoari jarraikiz, eta ordezeko irakasleen gastu-zerrenda 2023ko apirilaren 1ean aurkeztu ondoren (V. eranskina).

c) Hirugarren ordainketa gainerako zenbatekoagatik izango da, % 10, diruz lagundutako jarduera amaitutakoan, egindako gastu guztiak justifikatu eta aurreko artikuluko zenbaki guztiak bete ondoren.

2.– Justifikazioa aurkezten ez bada, edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan azaldutako kausaren bat jazo gero, dirulaguntza osorik edo zati bat kobratzeko eskubidea galduko da.

3.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak eskuragarri jarritako hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

16. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

1.– Emandako laguntzak errebotatzeko kausa izango da onuradunek agindu honetan ezarritako baldintza eta eskakizunak ez betetzea eta laguntzak erabiltzea aurkeztutako proiektuan zehaztuta ez dauden beste xede batzuetarako. Hori dela eta, dirulaguntzak benetan zertara bideratu diren egiaztatze ahalmena izango du Hezkuntza Sailak.

2.– Dirulaguntza emateko betekizunak betetzen ez direla frogatzen bada, jasotako zenbatekoak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, bai eta sortutako berandutze-interesak ere, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen 698/1991 Dekretuan. Itzultzeko modua ere aipatutako dekretuetan jasotzen da.

3.– Liberatutako irakasleek, gutxienez, dena delako jarduerari egotzitako ordu guztien % 70ean parte hartu beharko dute modu aktiboan. % 30 baino gehiagoko ehunekoan ez parte hartzea erabateko ez-betetzetat hartuko da, eta, horrelakoetan, jasotako dirulaguntzaren zenbateko osoa gehi bidezkoak diren berandutze-interesak itzuli beharra egongo da. Ez-betetze partziala izango da, berriz, gutxienez % 70eko parte-hartzea badago baina % 100era iritsi gabe. Horrelakoetan, jardueran izandako parte-hartze mailaren arabera itzuli beharko dute dirulaguntza.

4.– Hala ere, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren bat aldatuz gero, beste administrazio edo ente publiko edo pribatu batek, aldi berean, beste laguntza edo dirulaguntzaren bat ematen badu, edo helburu bererako beste diru-sarrera edo baliabideren bat baldin badago, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere, Aginduan laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak mantentzen badira, salbu eta gerora sortutako ezinbesteko kasuak direla-eta baldintzak betetzea ezinezkoa izan bada eta hori behar bezala justifikatzen bada Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzan. Ezinbestetzat joko dira Kode Zibilaren 1.105 artikulua xedatutakoarekin bat datozen kasuak.

17. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Hori gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa kasuan kasuko gehieneko mugaraino murriztuko da. Nolanahi ere, bestelako dirulaguntza edo laguntza batzuk jasoz gero, horren berri eman beharko da.

2.– Deialdi honen jardueretan parte hartzen duten irakasleen liberazio osoa edo partziala ordaintzeko jasotako dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango 2022-2023ko ikasturtean Hezkuntza Sailaren beste laguntza edo dirulaguntza batzuekin, horiek gauzatzeko baliatutako tresna juridikoa edozein izanik ere.

18. artikulua.– Jarduera egiteko baldintzak eta onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzen onuradunek baldintza hauekin bat etorriz eta honako betebeharrak bete egin beharko dute jarduera:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Horretarako, ebazpena jakinarazi eta 15 eguneko epean onuradunek berriaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko dute.

3.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzari justifikatzea deialdian ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzen dituztela.

4.– Jasotako funtsak zertarako erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, baita elektronikokoak ere, baldin eta egiaztatu eta kontrolatu ahal badira.

5.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman beharko diete, beren jardunean ari direla, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen dieten informazioa.

6.– Beste edozein administrazio, ente publiko edo pribatutatik agindu honetako helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote Hezkuntza Saileko Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari.

7.– Laguntza ematerakoan kontuan izandako inguruabarren bat aldatzen bada, horren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

8.– Laguntzea Lanbide Heziketako Sailburuordetzari, zuzenean edo bere organismo baten bidez (TKNIKA Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroa eta EEI Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua), dagokionaren arabera, jarduera bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa egiten.

9.– Jasotako dirulaguntzen berri emateko neurriak hartzea. Neurri horiek betetzeko erabiltzen diren euskarrietan –informatikoetan zein bestelakoetan– adierazpen hau sartuko da: «Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak finantzaturako jarduera».

10.– Ikastetxeak jarduerarako liberatutako irakaslea jarduera amaitu arte eduki beharko du. Justifikatutako arrazoiak direla-eta pertsona horrek ezin badu proiektua amaitu arte jarraitu, ikastetxeak hura ordezteko baimena eskatuko dio Lanbide Heziketako Sailburuordetzari, haren onspena lortzeko, eta proiektuaren ardura bere gain hartuko duen pertsonari buruzko datuak adierazi beharko ditu, bai eta aldaketaren arrazoia ere.

11.– Jarduera hauetako bakoitzean hautatutako ikastetxe guztiek irakastordurik gabe utzi beharko dute liberatutako irakaslea, I. eranskinean adierazitako astegunetan, jarduera hori TKNIKAN egin ahal izan dezan. Egoera horren berri Hezkuntza Jardueren Dokumentuan (HJD) jasoko da, bertsio itxian, «Act. PVFP» modura.

12.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

19. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Laguntza eta dirulaguntzak Lanbide Heziketako ikastetxeentzat eta entitate laguntzaileentzat.

Arduraduna: Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: Laguntza ekonomikoen eskaerak izapidetzea, parte-hartzaileak eta/edo interesdunak identifikatuta. Entitate laguntzaileentzako dirulaguntzak.

Legitimazioa:

a) Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

b) 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

c) 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

a) Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

b) Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia:<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/039900-capa2-eu.shtml>

Araudia:

a) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

b) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan araututako dirulaguntzei honako hauetan xedatutakoa aplikatuko zaie: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

2022ko maiatzaren 17a, asteartea

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

JARDUKETA-LERROEKIN LOTUTA DEIALDI HONETAN JASOTAKO JARDUEREN ZERRENDA.

JARDUERAREN ARABERAKO ZENBATEKO OSOAREN BANAKAPENA						
Eremu estrategikoa	Helburuak	Proposatutako jarduerak		Gehieneko ikastetxe-kopurua eta liberazio mota	Gutzizko dirulaguntza jarduera bakoitzeko	Organismo arduraduna
1. Aplikatutako berrikuntza	1.1 Produktio-agertoki berriari erantzun dioten espezializazio-arloak garatzea	1.1.1 Espezializazio-programak garatzea eta martxan jartzea, eta ziklo-ondoko lanbide-espezializazioko ikastaro esperimental bat garatzea.	1.1.1.1 Espezializazio-programa: Ekoizpen-bitartekoen kudeaketa automatizazio altuko industrian, automobilen ekoizpena eta ziklo-ondokoa: Lagundutako kudeaketa eta plangintza industria-muntaketarako prozesuetan	Ikastetxe bat, 3.286 orduko dedikazioa duela	131.440 €	EEI
			1.1.1.2 Espezializazio-programak	2.541 ordu guztira, gehieneko hauekin: - Retail sektoreko produktu freskoak: 363 ordu - Pertsona ardatz duen arreta: 363 ordu - Industria digitala: 363 ordu - Icloud native: 363 ordu - Ekoizpen-bitartekoen kudeaketa automatizazio altuko industrian, automobilgintza-osagarrien fabrikazioa: 363 ordu - Abiadura handiko eta errendimendu handiko material berezien mekanizazio aurreratua: 363 ordu - Bizikletak muntatzea, prestatzea eta mantentzea: 363 ordu	101.640 €	
2. Ikaskuntza 4.0 testuinguruan	2.1 «Errendimendu handiko heziketa-zikloen» eredu finkatzea eta hedatzea Euskadiko Lanbide Heziketan.	2.1.1 ETHAZI ereduaren eraldaketa digitaleko testuinguruetan ezartzeko adituen taldea	2.1.1.1 ETHAZI ereduaren transferentziarako adituen taldea - Metodologia	4 ikastetxe, bakoitzak 626 ordu esleituak dituela.	100.160 €	TKNIKA
			2.1.1.2 ETHAZI ereduaren transferentziarako adituen taldea - Kultura ekintzailea	Ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela	25.040 €	
			2.1.1.3 ETHAZI ereduaren transferentziarako adituen taldea - Pentsamendu sortzailea	Ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela	25.040 €	

2022ko maiatzaren 17a, asteartea

JARDUERAREN ARABERAKO ZENBATEKO OSOAREN BANAKAPENA							
Eremu estrategikoa	Helburuak	Proposatutako jarduerak		Gehieneko ikastetxe-kopurua eta liberazio mota	Guztizko dirulaguntza jarduera bakoitzeko	Organismo arduraduna	
	2.2 Ikaskuntza-prozesuei balioa ematen dieten eremuetan ikertzea eta esperimintatzea	2.2.1 ETHAZI eredu eraldaketa digitaleko testuinguruetan ezartzeko adituen taldea	2.1.1.4 Ethazi oinarriko LHn	2 ikastetxe, 313 ordu esleituak dituztela	25.040 €		
			2.2.1.1 Ikaskuntza-ereduaren eraldaketa digitalerako adituen taldea – Eraldaketa digitala	1 ikastetxe, bakoitzak 626 ordu esleituak dituela.	25.040 €		
		2.3 «Errendimendu handiko heziketa-zikloen» eredu finkatzea eta hedatzea Euskadiko Lanbide Heziketan	2.3.1 ETHAZI ereduaren ikaskuntza-koordinatzailea ikastetxeko eraldaketa digitaleko testuinguruetan	2.2.1.2 Ikaskuntzako guneak eta teknologiak (STEAM)	Ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela		25.040 €
				2.3.1.1 ETHAZI ikaskuntzako koordinatzailea (313 ordu)	2 ikastetxe, bakoitzak 313 ordu esleituak dituela.		25.040 €
		2.4 «Errendimendu handiko heziketa-zikloen» eredu finkatzea eta hedatzea Euskadiko Lanbide Heziketan	2.4.1 Jarraian adierazten diren heziketa-zikloetan ETHAZI metodologia garatzea eta ezartzea (2.4.1.1 eranskina)	2.3.1.2 ETHAZI ikaskuntza-koordinatzailea (250 ordu)	25 ikastetxe, bakoitzak 250 ordu esleituak dituela.		250.000€
				2.4.1.1 ETHAZI zikloak finkatzea	5 ziklo, bakoitzak 313 ordu esleituak dituela.		62.600 €
2.5 Ikaskuntza-prozesuei balioa ematen dieten eremuetan ikertzea eta esperimintatzea	2.5.1 Erreferentziako talde sortzaileak	2.5.1.1 Erreferentziako talde sortzaileak	2 ikastetxe, bakoitzak 626 ordu esleituak dituela.	50.080 €	IDEATK		
3. Elkarlaneko adimena eta malgutasun eraldatzailea	3.1 Berritzeko eta eraldatzeko gaitasuna garatzea	3.1.1 Adimen lehiakorra eta konplexutasunaren kudeaketa	3.1.1.1 Berrikuntza Adimen lehiakorra	Ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela	25.040 €	TKNIKA	
			3.1.1.2 Lanbide Heziketako ikastetxeak antolatuta eta kudeatzeko eredu berriak	8 ikastetxe, bakoitzak 626 ordu esleituak dituela.	200.320 €		
4. Berrikuntza teknologikoa eta sistema adimendunak	4.1 Lanbide Heziketako ezagutza transferitzea	4.1.1 TKGUNE	4.1.1.1 TKGUNE Digitalizazio aurreratua eta eraldaketa 4.0	4 ikastetxe, bakoitzak 939 ordu esleituak dituela.	150.240 €	TKNIKA	
			4.1.1.2 TKGUNE Finkapena digitalizazioan eta 4.0n	12 ikastetxe, bakoitzak 626 ordu esleituak dituela.	300.480 €		
			4.1.1.3 TKGUNE digitala eta 4.0	5 ikastetxe, bakoitzak 313 ordu esleituak dituela.	62.600 €		
			4.1.1.4 TKGUNE Berrikuntza gastronomikoa	5 ikastetxe, 626 ordu esleituak dituztela	25.040 €		
			4.1.1.5 Tkgune ereduaren garapenerako adituen taldea	2 ikastetxe, 626 ordu esleituak dituztela	50.080 €		
	4.2 Errendimendu handiko 4.0 Lanbide Heziketako ikastetxeak garatzea	4.2.1 ERALDAKETA DIGITALA	4.2.1.1 IoM (Internet of Machines) Industry 4.0 (Komunikazioa)	Ikastetxe bat, 417 ordu esleituak dituela	16.680 €	TKNIKA	
4.2.1.2 IoM (Internet of Machines) Industry 4.0 (biki digitala)			Ikastetxe bat, 417 ordu esleituak dituela	16.680 €			
4.2.1.3 Errealitate birtuala eta fusionatua			2 ikastetxe, bakoitzak 626 ordu esleituak dituela.	50.080 €			

2022ko maiatzaren 17a, asteartea

JARDUERAREN ARABERAKO ZENBATEKO OSOAREN BANAKAPENA						
Eremu estrategikoa	Helburuak	Proposatutako jarduerak		Gehieneko ikastetxe-kopurua eta liberazio mota	Guztizko dirulaguntza jarduera bakoitzeko	Organismo arduraduna
			4.2.1.4 3D modelaketarako segmentazioaren digitalizazioa medikuntzan Osasuna 4.0.	Ikastetxe bat, 417 ordu esleituak dituela	16.680 €	
			4.2.1.5 Digitalizazioa: 3D modelaketarako segmentazioa medikuntzan. Garapen ortoprotesiko pertsonalizatua	Ikastetxe bat, 250 ordu esleituak dituela	10.000 €	
			4.2.1.6 Robotika autonomoa	Ikastetxe bat, 417 ordu esleituak dituela	16.680 €	
			4.2.1.7 Digitalizazioa energia berriztagarrietan, hidrogenoa	Ikastetxe bat, 417 ordu esleituak dituela	16.680 €	
			4.2.1.8 Teknologia interaktiboak eta murgiltzaileak ezartzea	Ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela	25.040 €	
			4.2.1.9 5G sareak ezartzea «small cells» instalazioaren arabera	Ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela	25.040 €	
			4.2.1.10 Adimen artifiziala aplikatzea Euskadiko Lanbide Heziketako ikaskuntza- eta kudeaketa-plataformetan.	2 ikastetxe, 626 ordu esleituak dituztela	50.080 €	
			4.2.1.11 Blockchain teknologia aplikatzea Euskadiko Lanbide Heziketan	Ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela	25.040 €	
			4.2.1.12 Eraldaketa digitalerako adituen taldea: eraldaketa digital jasangarriko heldutasun-eredua hobetzea eta transferitzea.	Ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela	25.040 €	
			4.2.1.13 Eraldaketa digitalerako adituen taldea: datuen analisia	Ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela	25.040 €	
	4.3 Lanbide Heziketak erantzun sistematikoa ematea premia teknologikoei	4.3.1 ERALDAKETA DIGITALA	4.3.1.1 Mugikortasunaren digitalizazioa. Automotive Technologies	Ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela	25.040 €	
		4.4.1 NODOAK	4.4.1.1 Fabrikazio aurreratuko nodoa.	3 ikastetxe, 250 ordu esleituak dituztela	30.000€	
			4.4.1.2 Robotika autonomoko nodoa.	Ikastetxe bat, 250 ordu esleituak dituela	10.000 €	
			4.4.1.3 Fabrika digital eta konektatuko nodoa (313 ordu)	Ikastetxe bat, 313 ordu esleituak dituela	12.520 €	
			4.4.1.4 Fabrika digital eta konektatuko nodoa (250 ordu)	Ikastetxe bat, 250 ordu esleituak dituela	10.000 €	
			4.4.1.5 Energia	Ikastetxe bat, 250 ordu esleituak dituela	10.000 €	
			4.4.1.6 Biozientzietako nodoa.	2 ikastetxe, bakoitzak 250 ordu esleituak dituela.	20.000€	
			4.4.1.7 Osasuneko nodoa	Ikastetxe bat, 250 ordu esleituak dituela	10.000 €	

2022ko maiatzaren 17a, asteartea

JARDUERAREN ARABERAKO ZENBATEKO OSOAREN BANAKAPENA						
Eremu estrategikoa	Helburuak	Proposatutako jarduerak		Gehieneko ikastetxe-kopurua eta liberazio mota	Guztizko dirulaguntza jarduera bakoitzeko	Organismo arduraduna
5. Biozientziak eta garapen jasangarria	5.1 Ikerketa zientifikoa eta Lanbide Heziketari aplikatutako berrikuntza garatzea nekazaritzako elikadura jasangarrian, natura-ingurunean eta itsas ingurunean.	5.1.1 ERALDAKETA DIGITALA	5.1.1.1 Bioteknologia eta Osasuna 4.0	2 ikastetxe, bakoitzak 501 ordu esleituak dituela.	40.080 €	
			5.1.1.2 Ekonomia zirkularreko prozesuen digitalizazioa.	1 ikastetxe bat, 417 ordu esleituak dituela.	16.680 €	
			5.1.1.3 Gastronomia 4.0	1 ikastetxe bat, 417 ordu esleituak dituela.	16.680 €	
			5.1.1.4 Elikagai-industria 4.0	1 ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela.	25.040 €	
6. Egitura organiko espezializatuak. TKNIKA Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Euskal Autonomia Erkidegoko zentroa Aplikaturako Euskal Autonomia Erkidegoko zentroa	6.1 TKNIKA Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Euskal Autonomia Erkidegoko zentroa eraldatzea	6.1.1 Ekintzailletza	6.1.1.1. Ekintzailletzarako eraldaketa digitaleko aditua.	1 ikastetxe bat, 626 ordu esleituak dituela.	25.040 €	TKNIKA
			6.1.1.2 URRATSBAT aditua	19 ikastetxe, bakoitzak 313 ordu esleituak dituela.	237.880 €	
			6.1.1.3 URRATSBAT	10 ikastetxe, bakoitzak 250 ordu esleituak dituela.	100.000 €	
			Jarduera motak, guztira:		2.567.680 €	

1.1.1 ESPEZIALIZAZIO-PROGRAMAK GARATZEA ETA MARTXAN JARTZEA, ETA ZIKLO-ONDOKO LANBIDE-ESPEZIALIZAZIOKO IKASTARO ESPERIMENTAL BAT GARATZEA		JARDUERA: 1.1.1.1 ESPEZIALIZAZIO-PROGRAMA: EKOIZPEN-BITARTEKOEN KUDEAKETA AUTOMATIZAZIO ALTUKO INDUSTRIAN, AUTOMOBILEN EKOIZPENA ETA ZIKLO-ONDOKOA: LAGUNDUTAKO KUDEAKETA ETA PLANGINTZA INDUSTRIA-MUNTAKETARAKO PROZESUETAN			
DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO ZENBATEKOA, GUZTIRA		131.440 €		JARDUERAREN EBALUAZIOAZ ETA GARAPENAZ ARDURATUKO DEN ORGANISMOA	
IKASTETXE KOPURUA, GUZTIRA	1	DAGOKION LIBERAZIOA IKASTETXEKO	3.286 ORDU		EEl
PROPOSATUTAKO EGINKIZUNAK ETA HELBURUAK					
Lanbide-espezializazioko programak diseinatu eta definitzea, ondoren onartu eta garatzeko, EAeko ekoizpen-sektore estrategikoetan, bereziki industria-arloan, dauden gaikuntza bereziko eskarien eta beharren arabera.					
JARDUERA GARATZEKO BALDINTZAK					
Jarduera ikastetxearen egutegiaren barruan garatuko da, eta proposatutako lanbide-espezializazioko programari lotuta dauden zikloko irakasleei esleituko zaie ballabidea. Erreferentziako bi kide izendatuko dira, hautatutako sektorearen ordezkariekin zein EEIko taldearekin koordinazioa errazteko.					
BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK					
Ikastetxeak Elektrizitatea eta Elektronika lanbide-arloko Automatizazioko eta Robotika Industrialeko goi-mailako heziketa-zikloa eta Instalatze- eta Mantentze-lanak lanbide-arloko Mekatronika Industrialaren goi-mailako heziketa-zikloa eman beharko ditu, baita Fabrikazio Mekanikoko lanbide-arloaren heziketa-zikloen bat ere.					
BALORATU BEHARREKO ALDERDIAK ETA IRIZPIDEAK					
<ol style="list-style-type: none"> 1. Hezkuntza Sailarekin itundutako eta 2021-2022ko ikasturtean emandako Elektrizitatea eta Elektronika, Instalatze eta Mantentze Lanak zein Fabrikazio Mekanikoa lanbide-arloetako heziketa-ziklo ezberdinen kopuruagatik 3 puntu emango dira gehienez. 2. Aurreko atalean zehaztutako lanbide-arloetako heziketa-zikloetan 2019-2020ko ikasturtean matrikulatutako ikasleengatik (persona kopurua) 2 puntu emango dira gehienez. 3. 2021ean amaitutako ikasturteetan enplegurako lanbide-heziketaren eskaintzan parte hartzeagatik 2 puntu emango dira gehienez. 4. 2021-2022ko ikasturterako onartutako txandakatze-araubideko prestakuntza dualeko proiektuen kopuruagatik puntu 1 emango da gehienez. 5. Gehienez puntu 1 emango da, azken hiru ikasturteetan ikaskuntza-agertoki berrietan metodologia aktiboak eta berrikuntzakoak diseinu, garatu eta ezartzearekin lotutako proiektuetan, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak bultzatutakoetan, parte hartzeagatik. 6. Elektrizitatea eta Elektronika, Instalatze eta Mantentze Lanak zein Fabrikazio Mekanikoa lanbide-arloetako heziketa-zikloetan 2021-2022ko ikasturtean matrikulatutako ikasleen guztizko kopuruan dagoen emakumeen ehunekoagatik puntu 1 emango da gehienez. 					

1.1.1 ESPEZIALIZAZIO-PROGRAMAK GARATZEA ETA MARTXAN JARTZEA, ETA ZIKLO-ONDOKO LANBIDE-ESPEZIALIZAZIOKO IKASTARO ESPERIMENTAL BAT GARATZEA		JARDUERA: 1.1.1.2 ESPEZIALIZAZIO-PROGRAMAK	
DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO ZENBATEKOA, GUZTIRA	101.640 €	JARDUERAREN EBALUAZIOAZ ETA GARAPENAZ ARDURATUKO DEN ORGANISMOA	EEI
ORDU KOPURUA, GUZTIRA	2.541 ordu		
GEHIENEO LIBERAZIOA PROGRAMA BAKOITZEKO			
<ul style="list-style-type: none"> - Retail sektoreko produktu freskoak. - Pertsona ardatz duen arreta. - Industria digitala. - Icloud Native. - Ekoizpen-bitartekoen kudeaketa automatizazio altuko industrian, Automobilgintza-osagarrien fabrikazioa: - Abiadura altuko eta errendimendu altuko material berezien mekanizazio aurreratua: - Bizikletak muntatzea, prestatzea eta mantentzea. 			
PROPOSATUTAKO EGINKIZUNAK ETA HELBURUAK			
Lanbide-espezializazioko programak egikaritzea, EAEko ekoizpen-sektore estrategikoetan, bereziki industria-arloan, dauden gaikuntza bereziko eskarien eta beharren arabera.			
JARDUERA GARATZEKO BALDINTZAK			
<p>Jarduera ikastetxearen egutegiaren barruan garatuko da, eta proposatutako lanbide-espezializazioko programari lotuta dauden zikloko irakasleei esleituko zaie baliabidea.</p> <p>Jarduera hori egiteko, beharrezkoa izango da alde aurretik Lanbide Heziketako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren baimena izatea espezializazio-programa antolatu eta emateko.</p> <p>Espezializazio-programa eskatzen edo eskaintzen duen ikastetxea bakarria bada, programa bakoitzari esleitutako gehieneko ordu kopurua izango du.</p> <p>Espezializazio-programa bera emateko hainbat ikastetxek parte hartzen badute –hori alde aurretik baimendu beharko du Lanbide Heziketako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak–, ikastetxe parte-hartzaile bakoitzak eskaera bat egin beharko du (bakoitzak berari dagozkion orduekin), eskaera horien baturak espezializazioari esleitutako gehieneko ordu kopurua gaindi ez dezan. Eskaeran, programa hori eskaintzeko orduan zein ikastetxerekin parte hartzen duen adierazi beharko da. Kasu horretan, espezializazio-programa bera eskaintzen duten ikastetxeek lortutako puntuen batezbesteko aritmetikoa izango da bakoitzak lortutako puntuazioa; hala, espezializazio-programa ikastetxe bakar batek eskainiko balu bezala baloratuko da, programari atxikitako gehieneko orduekin.</p>			
BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK			
Ikastetxeak eskaini behar duen espezializazio-programari atxikitako prestakuntza-zikloa eman beharko du, eta industriaren alorrekoa izango da lehentasunez.			
BALORATU BEHARREKO ALDERDIAK ETA IRIZPIDEAK			
<ol style="list-style-type: none"> 1. 3 puntu, ikastetxe eskatzaileak beste espezializazio-programaren baten lanketan edo sorkuntzan parte hartu badu. 2. 3 puntu, ikastetxe eskatzaileko irakasleek beste espezializazio-programaren batean prestatzaile gisa parte hartu badute. 3. 2 puntu ikastetxe eskatzaile bakoitzari, espezializazio-programa bat eskaintzeko LHko ikastetxe parte-hartzaile bat baino gehiago badaude. 4. Puntu 1 ikastetxe eskatzaileak 2021-2022ko ikasturte akademikoan eskaintzen duen Lanbide Heziketa Dualeko ziklo bakoitzeko. 5. 2021ean amaitutako ikasturteetan enplegurako lanbide-heziketaren eskaintzan parte hartzeagatik 2 puntu emango dira gehienez. 6. Puntu 1, ikastetxe eskatzaileak azken hiru ikasturteetan ikaskuntza-agertoki berrietan metodologia aktiboak eta berrikuntzakoak diseinu, garatu eta ezartzearekin lotutako proiektuetan, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak bultzatutakoetan, parte hartu badu. 7. Puntu 1 (3 emango dira gehienez), ikastetxe eskatzaileak kasuan kasuko espezializazio-programaren irakaskuntzan parte hartu duen ikasturte bakoitzeko. 8. 4 puntu, ikastetxe eskatzailearen lurraldean dagoen heziketa-zikloa ematen duen ikastetxe bakarria dagoenean. 			

2022ko maiatzaren 17a, asteartea

